

GAZTEEN I. PODCAST LEHIAKETAREN OINARRIAK:

1. Lehiaketaren partaideek gutxienez 12 urteak beteak izan beharko dituzte, eta gehienez 30 urte.
2. Lehiaketa honetan parte hartu ahalko dute honako baldintzetako bat betetzen duten gazteek:
 - Larraintzako Ikastetxe Publikoan edo Oihanzabal Ikastetxe Publikoan ikasi dutenak, edo oraindik ikasten dabiltzanak.
 - Imotz, Basaburua, Ultzama, Atetz, Anue, Odieta edota Lanzko udalerritan erroldaturik daudenak.
3. Deialdi honetara bakarka edo taldean eginiko podcast-ak aurkeztu daitezke, baina podcast bakoitzak arduradun bakarra izango du. Taldeka egiten direnen kasuan, parte hartzaile guztiak identifikatuak egon beharko dira, eta podcast bakarra bidali ahalko du talde bakoitzak.
4. Euskaraz, originalak eta inon argitaratu gabeak izan behar dute. Baldintza hauetakoren bat bete ezean, lehiaketatik kanpo geratuko da/dira egileak. Epaimahaiak, epaia publiko egin eta gero, frogatuko balu saritutako lanak ez duela oinarrietako baldintza bat betetzen, jasotako saria itzuli beharko du/dute egileek.
5. Podcast-en gaia librea izango da, eta gutxienez 15 minutu eta gehienez 30 minutu iraungo dute.
6. Giza eskubideak eta pertsonen arteko bizikidetzaren balioak errespetatzen ez dituzten podcast-ak lehiaketa honetatik kanpo geldituko dira.
7. Lanak MP3 formatuan egon behar dute, eta posta elektronikoz bidaliko dira gazteenlehiaketa@gmail.com helbidera. E-postaren gaian: *"Gazteen I. Podcast Lehiaketa"* jarriko da. Podcast-ak Google Drive bidez partekatuko dira bidaltzerakoan, fitxategi handiak izango direlako (25 MB baino handiagoak). Mezuan gainera hurrengo datuak sartu beharko dira:
 - Parte hartzaile guztien eta arduradunaren izen-abizenak. Guztien NAN dokumentuen fotokopia/eskanerra + erroldatze-agiria, edo Larraintzako Ikastetxe Publikoan edo Oihanzabal Ikastetxe Publikoan ikasleak diren / izan diren ziurtagiria.
 - Arduradunaren helbidea, telefonoa, kontu korrante zenbakia (IBAN datuarekin) eta jakinarazpenak jasotzeko posta elektronikoaren helbidea.
 - Lanaren izenburua edo leloa, eta podcast-aren zehaztapenak: iraupena, gaia edo generoa, etab.
8. Lanak aurkezteko epea: 2025eko azaroaren 17tik eta 30era bitartean (biak barne).
9. Hizkuntzaren egokitasuna, originaltasuna, sormena eta lanaren kalitate teknikoa baloratuko da.

10. Epaimahaia: Esan Erran Irratiko bi teknikari, Ametza Kultur Elkarteko zuzendaritza taldeko kide bat, eta Euskara Zerbitzuko teknikari batek osatuko dute. Epaimahaiaren irizpidea apelezina izango da eta bi sariak, hutsik gera daitezke.
11. Lehiaketaren antolatzaileek *Gazteen 1. Podcast Lehiaketa*n aurkeztutako lanak argitaratzeko eskubidea jasotzen dute.
12. Sariak:
 - Lanik onena: (400€) + podcast-a Esan Erranen emititzea + Pulunpen elkarrizketa.
 - Lanik originalena: 400€ + podcast-a Esan Erranen emititzea + Pulunpen elkarrizketa
 - Teknikoki lanik onena: Pulunpen aipamena + Esan Erranen emititzea + grabaketak egiteko kit bat.
13. Lehiaketaren irabazleak 2025eko abenduan, eguberrien aurretik jakinaraziko dira www.iparmank.eus eta www.amezti.eus webguneetan.
14. Lehiaketa parte hartzeak zuzenean oinarrien onarpena dakar.

ARGIBIDEAK: Imotz, Basaburua, Ultzama eta Odietako Euskara Zerbitzua: 948 305134 / ezubioa@iparmank.eus